

Elkartasun istorioak

Osasun Zentro berria martxan

Azaroak 25: Amelia Tiganus Zuian

HAPO orokorraren agerraldi publikoa

2020rako Zerga eta Tasen Ordenantza

Alokairu sozialeko etxebizitzaren esleipena

2019ko udazkena

ZUBIA

Zuia udalerriko aldizkaria



Berriak

- 3 Amelia Tiganus Zuian, Emakumeen Aurkako Indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Egunaren programan
- 4 2020rako Zerga, Tasa eta Zerbitzu publikoen Ordenantza
- 7 Osasun Zentro berriaren lanak martxan
- 8 Alokairu sozialeko etxebizitzak esleitu dira berriro
- 9 Hiri Antolamenduko Plan Orokorren agerraldi publikoa
- 10 Elkartasun istorioak Agustín Corbea, Encarni Urkiza eta Marian Uriartekin

Atalak

- 12 Ikastetxe publikoak: Virgen de Oro eskola
- 13 Udal liburutegia
- 14 Bailerako taldeak: Zuia Bolos elkarteak
- 15 ZubiAgenda



ZUBIA - Zuia udalerriko aldizkaria - 2019ko udazkena

Azalaren argazkia: 'Atxabal egunsentian', Sergi Pz. de Pipaon Bragado. Gorbeialdeko Kuadrillako Argazki Lehiaketan Zuia udalerriko irudirik onena hauatutua.

Edatzaillea: **Zuiko Udala** - Udal Plaza 1 - Murgia 01130 - ARABA - T_945 430 005 - azuia.general@ayto.araba.eus - www.zuia.eus - Erredakzioa: Mirian Biteri - Koordinazioa: Rosa Ortiz de Mendivil - Diseinua eta maketazioa: www.hirudesign.com - Inprimaketa: www.graficasirudi.es - Ale kopurua: 1.100

ZUBIAko testuak edota argazkiak zabaltzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

Irakurri ere udalaren sare sozialetan:



www.facebook.com/ZuikoUdala



[@ZuikoUdala](https://twitter.com/ZuikoUdala)

#Azaroak25 #ProstituzioarenAbolizioa

Amelia Tiganus Zuian, Emakumeen Aurkako Indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Egunaren programan

Ekintzaile feminista prostituziora behartutako emakumea izan da, eta salerosketa sare batetik ateratzea lortu du



Amelia Tiganus izango da protagonista Emakumeen Aurkako Indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Egunaren (azaroak 25aren) harira antolatutako hitzaldian. Emakumeen salerosketa eta prostituziotik bizirik atera ondoren, gaur egun Euskal Herriko mugimendu abolizionistaren barruan eta feminicidio.net egitasmoan ere egiten du lan. Azken hau genero-ikuspegitik abiatutako informazio eta kazetaritzako webgune bat da; eta helburua du dokumentatzea eta ikusaraztea "normalizatu dugun basakeria bat: feminizidioa; hau da, emakume izateagatik emakumeak erailteza". Amelia Errumanian jaio zen 1984an, langileen auzo batean. Txikitan maistra izan nahi zuen, baina 13 urterekin, eskolara zihoanean, bidean gurutzatu ziren bortxatzaileek bizitza aldatu zioten. Lotsagatik, ez zuen salatu talde-bortxaketa, eta handik urte gutxira prostituzioan sartu zen, bere bizi maila hobetzeko promesapean. Engainatuta iritsi zen Espainiara eta 300 euroan saldu zuten prostituzio-etxe batean, oraindik adingabea zelarik.

Azaroaren 14an, Murgian

Neke askoren ostean, duela 12 urte lortu zuen prostituziotik ateratzea, "fisikoki behintzat,

psikologikoki gaur egun oraindik bertatik ateratzen ari naizelako", kontatu du. Gaur egun Euskadin bizi da eta prostituzioaren abolizioaren aldeko borrokaren barruan ahots gogorrenetako eta ausartenetako bat da. Azaroaren 14an, ostegunean, "Prostituzioa, emakumeen aurkako indarkeria bezala" hitzaldia emango du. Hitzordua arratsaldeko 6:30ean izango da, Zuia Udaletxeko lehen solairuan.

Bere lanari buruz gehiago jakiteko, "La revuelta de las putas" irakur dezakezue. 2017an Ameliak idatzitako artikulua, honela hasten da: "Ahizpa puta maiteok, zuengana jotzen dut eta hitz egiten dizuet ez dudalako nahi eta ez dudalako hitz egin behar zuen ordez. (...) Jakin behar duzuen zera da: zuen historia pertsonala milaka, milioika emakume eta neskatila prostituziora botatzen dituen sare handi baten parte dela. Beraz, konponbide zaila duen arazo soziala dela, neoliberalismoarekin sakondu dena".

Azaroak 25 - Emakumeen aurkako Indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna
Adi egun horretarako Gorbeialdeko eta Euskal Herriko Mugimendu Feministak egingo dituen deialdie!

#Zergak #Tasak #PrezioPublikoak

2020rako Zerga, Tasa eta Zerbitzu publikoen Ordenantza



Zortzi urte baino gehiagoan zerga eta tasen gehiengoa izoztuta egon ondoren, Zuiako Udalak hiru 3 tasa eta zerga 1 igo ditu. Gainerako zerga eta prezio publikoak ez dira igoko; batzuen kasuetan, aldiz, hobariak handiagoak izango dira. Hala eta guztiz ere, herritarrek jasotzen ditugun zerbitzuengatik ordaintzen duguna eta udalak pagatzen duen kostuaren arteko aldea handia da.

Oro har:

- Zergen artean, bakarrik Ibilgailuena igoko da. Eta hori, gutxienez 8 urtez izoztuta egon ondoren. Ibilgailuen Zergak % 0tik % 8ra bitarteko igoera izango du, zaldi fiskalen arabera. Igoera handienak suposatuko du urtean 11'35 € gehiago ordaintzea. Traktore, autobus eta kamioien kasuetan, 2019an bezala mantenduko da
- Lehen graduko heriotza-kasuak Gainbalioen Zergatik salbuetsita egongo dira
- Ura, Estolderia eta Arazketaren Tasa % 10 igoko da. Horrek esan nahi du, adibidez, 2'52 € gehiago ordaindu beharko dela urtean 100 metro kubikoko kontsumorako
- Instalazio eta kirol jardueren prezioek bere horretan jarraituko dute. Berdin gertatzen da kultur jarduerekin

Urriko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko botoekin eta Zuia Bai eta Alderdi Popularra taldeen aurkakoekin, Zuiako Udalak 2020rako Ordenantza Fiskala onartu du; hau da, hainbat zerbitzuren tasak, zergak eta prezio publikoak arautzen dituzten arau fiskalak. Horiek guztiak diru iturri garrantzitsuak dira, udal aurrekontuaren herena baino gehiago ekartzen baitute. Horien bilketari esker posible da zerbitzuak ematea, diru-laguntzak ordaintzea eta inbertsioak egitea.

Azken 8 urteetan, kasu zehatz batzuetan izan ezik, ez da aldaketarik edo igoerarik izan zergetan. Tasa eta prezio publikoei dagokienez, igoera txikiak izan dira. Emandako zerbitzuen kostua, aldiz, etengabe hazi da eta, gainera, berriak ezarri dira. Horrek guztiak gastu arrunten igoera ekarri du. Datorren urterako, 2020rako, hainbat aldaketa onartu dira. Hurrengo hauek dira:

Zergak

Ibilgailuen Gaineko Zerga bakarrik igoko da. Gainerakoak 2019an bezala mantenduko dira.

Ibilgailuen Gaineko Zerga

Lehen zatia izoztuta mantenduko da eta gainerakoa pixkanaka igoko da % 8ra ailegatu arte, zaldi fiskalen arabera. Honen ondorioz, orain 43'16 € ordaintzen duten 8 eta 12 arteko zaldi fiskalen ibilgailuek, 44'02 € ordainduko dituzte datorren urtean. Igoera, beraz, 0,86 eurokoa da.

Igoera handiena 20 zaldi fiskal baino gehiagoko ibilgailuetan gertatu da. Orain arte 141'90 € ordaintzen zituzten, eta 2020tik aurrera 153'25 € ordainduko dituzte; hau da, urtean 11'35 € gehiago. Traktore, kamioi eta autobusen zergak, berriz, izoztuta jarraituko du eta 2019ko kantitate berdina ordaindu beharko dute.

Esan beharra dago, era berean, igoera egongo den arren, Zuia beste udal askoren azpitik dagoela zerga honi dagokionean.

Azkenik, 25 urtetik gorako ibilgailuei ordaintzeko salbuespena kendu da. Adinagatik, gainerakoek baino gehiago kutsatzen dute, beraz, ez da arrazoirik ikusten salbuetsita egoteko.

OHZ, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga

Ez da aldatuko, oraingoz. 2019an zehar, Arabako Foru Aldundia Zuiako ondasun eta higiezinaren katastroko balioak berrikusten ari da. Beraz, udalak uste du emaitza horien zain egon behar dela, edozein aldaketa planteatu aurretik.

Onartutako aldaketa bakarrik Eusko Jaurlaritzaren alokairu-planen baten barruan dauden higiezinarentzako hobariarekin du zerikusia. Kasu horietan, udalak % 50eko hobaria emango dio OHZri. Aitzitik, etxebizitza hutsen (Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Legearen definizioaren arabera) OHZ % 50 gehiago kargatuko du. Neurri hauekin, udalak bilatzen du etxebizitza horiek alokairu-merkatura ateratzea, hutsik ez geratzea, eta gure herrien despopulatzearen aurka borrokatzea. Aldundiak berak duela zenbait urte onartutako neurria da eta Euskal Herriko zenbait udalek aplikatzen dute dagoeneko.

**Gainerako zergak**

Gainerako zergetan aldaketak izan dira hobarietan, baina ez, berez, zergan. Garrantzitsuena Gainbalioen Zergan aurkitzen dugu: % 100en hobaria (edo salbuespena) ahaidetasuneko lehen graduan, heriotzagatiko eskualdaketa edo herentzia kasuetan.

Tasak

Europar indarrean dago tasen bidez emandako zerbitzuaren gastua berreskuratzea behartzen duen zuzentarau bat, baina oso administrazio publiko gutxiak betetzen dute. Gure udalerrian, tasen bidezko bilketa (ura, arazketa, zaborrak...) oso urrun dago zerbitzu horiek dakarten gastua estaltzetik, defizitarioak baitira.

2020ko udal Ordenantza Fiskalera itzuliz, % 10eko igoera onartu da Uraren Hornidura, Estolderia eta Arazketa Tasan. Gobernu taldearen arabera, "igoeratik haratago, beharrezkoa da hausnarketa bat egitea, erantzukizunetik abiatuta, zerbitzuen benetako kostuari buruz, zergadun gisa egiten dugun ekarpenaren zenbatekoari buruz eta trukean jasotzen dugunari buruz".

Ur-hornidura

Onartutakoigoerarekin, gauregunseihilabeteen 50 metro kubiko (m3) kontsumitzeagatik 12'60 € ordaintzen dituen pertsona batek, datorren urtean 13'86 € ordainduko ditu; hau da, 1'26 € gehiago seihilekoan edo 2'52 € gehiago urtean. Urteko igoera, beraz, ez da 3 eurora iristen. Ur kantitateari dagokionez, 50 m3 50.000 litro dira; hau da, 1.000 litroko 50 bidoi, gure baratzetxe askotan ikusten ditugunak bezalakoak.

#Zergak #Tasak #PrezioPublikoak

Preziora itzuliz, taberna batean, afari-egun batean, hanburgesa eta edari batengatik ordaintzen dugunaren antzekoa, hain zuzen ere.

Uren Arazketa

Beste horrenbeste gertatuko da gure etxeetatik ateratzen diren hondakin-uren arazketarekin. Gaur egun, etxebizitza batek 7'5 € ordaintzen ditu, sei hilean behin, 50 metro kubiko hondakin-ur arazteagatik. Igoerarekin 8'25 € ordainduko ditu; hau da, 0'75 € gehiago seihilekoan edo 1'50 € urtean.

Zabor Bilketa

Zaborren tasan %4ko igoera onartu da. Hori dela eta, etxebizitza bakoitzaren urteko ordainagiria gaur egungo 73'76 €-tik 76'71 €-ra igaroko da datorren urtean; hau da, 2'95 € gehiago urtean. Honen harira kontuan hartu behar da - Arabako Hondakinen Behatokiaren arabera - Zuiako biztanle bakoitzak, batez beste, 320 etxeko hondakin kilo sortzen dituela urtean. Tasa, ordea, etxebizitza bakoitzagatik ordaintzen da, bertan bizi direnen kopurua kontuan hartu barik. Esate baterako, 3 lagunekin etxebizitza batean hondakinen kopurua 960 kg-ra iritsiko litzateke, ia tona bat urtean. Etxebizitza horretan zaborra erretiratzeko eta kudeatzeko gastuak hirukoitza izan arren, kasu guztietan zenbateko bera ordainduko litzateke (aipatutako 76'71 € horiek). Aipatzekoa da, halaber, udalak aplikatuko duen %4ko igoera hori, Jundizko tratamendu-plantan gure hondakinak isurtzeagatik ordaintzen ditugun tasek izango duten gorakadaren ondorioa dela. Eta baita zaborra kentzeko esleipen berriaren kostu handiagoarena ere.

Prezio Publikoak

Azkenik, instalazio eta kirol jarduerak erabiltzeko Prezio Publikoak izoztuko dira, eta Musika Eskolakoak ere bai. Udalbatzaren gehiengoaren arabera, diru-sarrerak baino gastu gehiago dituzten zerbitzuak izanik ere, eta herritar guztientzat eskuragarriagoak izan daitezkeelako, egungo egoera ekonomiko onak kulturen eta kirolean inbertitzeko aukera ematen du.

Zerga eta tasen arteko aldea

Zergak dira, trukean zuzeneko zerbitzurik jaso gabe, zergadunek nahitaez ordaindu behar ditugun diru kopuruak (OHZ, Jarduera Ekonomikoen Gaietako Zerga ...). Tasak, aldiz, zerbitzu konkretu baten truke ordaintzen dira (zaborrak kendu eta kudeatzea, arazketa edo ur-hornidura ...).



#ZerbitzuPublikoak

Osasun Zentro berriaren lanak martxan

Eraikina Murgiako Aiurdin kalean egiten ari dira, solairu bakarrekota eta erabat irisgarria izango da, eta 2020 urteko udazkenean martxan egotea espero da



Itxaronaldi luze baten ostean eta hamaika oztopo gainditu ondoren, irailaren hasieran, azkenik, Zuiako Udalak eta Osakidetza *zuinketa* aktatu sinatu zuten. Hau da, Osasun Zentro berriaren lanak hasi ahal izateko falta zen azken tramitea.

Eraikina Murgiako Aiurdin kalean egiten ari dira, Zuiako Udalak horretarako propio utzitako udalaren lursail batean. Zentro berriak ordezkatzeko du gaurko anbulatorioa, bailarak dituen beharretarako txiki geratu zena eta azken urte hauetan arazo larriak zituen; besteak beste, osasungarritasun-akatsak, intimitaterik eza eta irrigarritasun falta.

Lanaren exekuzioa Osakidetza dagokio, eta honek hasierako lizitazioko kostea 1.398.000 euroan ezarri du. Lanak S.L. EBA enpresari esleitu dizkio eta eraikitzeke 10 hilabeteko epea eman dio. Zuiako Osasun Zentro berria behingoz eraikitzeak azken hamarkadan udalak izan duen borrokari amaiera ekarriko dio.

Familia Arreta eta Arreta Pediatrikoa

Osasun-etxe berria irisgarria izango da,

erabat. 540 metro karratuko azalera izango ditu, solairu bakar batean, eta bereizitako 2 eremu izango ditu: Familia edo Lehen Mailako Arreta eta Arreta Pediatrikoa. Lehenengoan (Familia Arreta) hurrengo gune hauek eraikiko dira: itxarongela bat, medikuntzarako 2 kontsulta eta erizaindegirako beste 2. Arreta Pediatrikoak, bere aldetik, honako itxura izango du: itxarongela bat, orgatxoetarako beste bat, erizaindegiko kontsulta bat, medikuntzarako beste bat eta, azkenik, jolaserako gune bat. Aipagarria da, era berean, Osasun Zentroak herritarren arretarako beste gela komun bat izango duela, eta prestakuntza-jardueretarako beste bat. Eta kontuan hartuta Zuiako eskualdeko herriburua dela, osasun-etxean Etengabeko Arreta Gunearen (EAG) zerbitzuaren guardiak egin ahal izateko egokitutako instalazioak ere egongo dira. Azkenik, aparkaleku bat eraikiko da kanpoaldean, anbulantziak eta langileek erabiltzeko. Bertan, hainbat aparkaleku eraikiko dira ezgaitasunak dituzten pertsonentzat. Gainerako erabiltzaileek, aldiz, Aiurdin kalean daudenak erabili ahal izango dituzte.

#UdalEtxebizitzakAlokairua

Alokairu sozialeko etxebizitzak esleituko dira berriro

Murgiaiko Maisuen Etxeko lau pisuak dira, horietako bat, egokitutakoa

Urriaren amaieran amaitu zen Zuiako Udalaren alokairu sozialeko 4 etxebizitzaren kontratua; Murgiaiko *Maisuen Etxean* dauden pisuak dira, hain zuzen ere. 9 urteren ondoren, eta legeak baimentzen dituen luzapenak ahituta, 2019 urtea bukatu baino lehen etxebizitzak esleituko dira berriro, alokairu sozialak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren legea betez.

Horretarako, joan den uztailaren amaieran udal osoko bilkurak onartu zituen esleipen-prozesu berria arautuko duten oinarriak, puntuen bidezko baremazio sistema batean oinarrituta egongo direnak. Gainera, udalak ekainean ezagutarazi zuen moduan, interesa duten pertsonak hurrengo baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Etxebidek, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak, ezartzen dituen baldintza guztiak betetzea (adina, errenta...)
- eta bere erregistroan izena ematea, Zuia udalerriko etxebizitza-eskatzailerik bezala, uztailaren 15a baino lehenago.

Irizpide objektiboak

Epe hori amaituta, baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiekin zerrenda bat egingo du Etxebidek. Dokumentu hori erabiliko du Zuiako Udalak baremazioa egiteko, arautzeko oinarriak erabiliz.

Modu horretan, eta aurreko esleipen-prozesuan ez bezala, ez da zozketarik egingo. "Etxebizitza eskubide bat da, eta eskubideak ez dira zozketatzen", esan du udalbatzak. Horregatik, esleipen-ordena ezarriko du hurrengo irizpide objektiboen arabera:

- etxebizitza eskatzaile bezala, Etxebideren erregistroko izen-ematearen antzintasuna
- familia-unitatearen kide kopurua
- haztatutako diru-sarrerak
- Zuian erroldatze antzintasuna
- Etxebizitza Legean araututako behar bereziko taldeetako kide izatea.

Azkenik, gutxienez 5 urterako esleipena izango da.



Etxebizitzak, Murgiaiko *Maisuen Etxea* izeneko eraikinean daude (Domaikiako errepidea kaleko 5. zenbakian). Bakoitzak 70 metro karratu inguru ditu. 3 pisu horrela daude banatuta: 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Eta bestea erabat egokitutako etxebizitza da, logela bakarra, sukaldea, egongela eta bainugela hornituta.

#HAPOberria

Hiri Antolamenduko Plan Orokorren agerraldi publikoa

Herriarrek iradokizunak egin eta zalantzak argi ditzakete, jada, erredakzio taldearekin. Ezinbestekoa da hitzordua eskatzea aldez aurretik, udal bulegoetan edo udaleko telefonora deituta

Joan den irailean, Udaleko Osoko Bilkurak oniritzia eman zion, aho batez, Arabako Aldizkari Ofizialean Zuiako HAPOaren aurrerapena argitaratzeari. Herrian hirigintza eta antolamendurako arau berriak garatzeko lehen urratsa da; etorkizunean gure udalerririk izango duen hazkunde diseinatzeak aukera emango duena, hain zuzen ere.

Dokumentua aldizkari ofizialean urriaren 21ean argitaratu zen. Ordutik, 2 hilabeteko epea ireki dajendeaurrean jartzeko. Horrela, bailarako bizilagunek planaren aurrerapenari iradokizunak egiteko aukera izaten dute, herriarren parte-hartzeari irekita baitago. Era berean, zalantzak kontsultatu ahal dituzte STOA

enpresako erredaktore-taldearekin astean 2 egunetan (asteartean 8: 30etik 11:30era eta ostegunean 11: 30etik 14:30era). Kasu guztietan hitzordua eskatu behar da aldez aurretik, udal bulegoetan bertan edo udaleko telefono zenbakira deituta: 945 43 00 05

Izan ere, interesa duten pertsonak udaletxeko bulegoetara joan daitezke, jendaurreko ordutegian (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara), udaletxeko 1. solairuan ikusgai dauden planoak kontsultatzeko.

Behin-lehenengo fase hori amaituta, herriarrek beste une bat izango dute alegazioak aurkezteko: dokumentuari hasierako onarpena eman ondoren, hurrengo urte eta erdian zehar.

#HerriarrenParteHartzea

Kultura Mahaia sortu da

Berdintasun, Euskara eta Kontzejuen Batzordeen ereduari jarraituz jarri da martxan. Eta, horietan bezala, bere helburua da udal erabakietan eta plangintzan herriarren parte-hartzea handitzea. Kultura Mahaian, gainera, herriarrek izango dira Zuiako kultur agenda erabakiko dutenak.

Oraingoz, 2 bilera egin dira (irailaren 4an eta urriaren 2an). Bertan, norbanako, bailarako

kirol elkarte eta kultura taldeak, eta udalbatza osatzen duten alderdi politikoetako ordezkariak elkartu ziren ekimenari hasiera emateko eta lehenengo zereginei ekiteko. Besteak beste, urteko azken hiruhileko honetako kultur hitzorduak planifikatzea.

Hurrengo bilera azaroaren 28an izango da, udaletxean, 18:30ean. Zure zain gaude!

Informazio gehiago eta kontaktua: cristinacultura@gorbeialdea.eus

Errespetua nahi duzu? Bada, errespetatu

Gizalegerik gabeko jokabideak

Berriro ere, Zuiako Udalak dei egiten die herriar guztiei - gazteei batez ere -, gizalegezkoak ez diren jokabideak desagerrarazteko. Ez kalte ekonomiko handia eragiten dutelako bakarrik, auzokide guztien artean ordaintzen duguna; baizik eta, nagusiki, gainerakoei eragiten dizkieten eragozpenengatik. Egunez egun pairatzen jarraitzen dugun jarrera eta suntsiketen artean, hurrengo hauek dauzkagu:

- farolak harrika haustea, behin eta berriz. Eta baita udalerrian oinezkoentzako bidezidorren ibilbideak markatzen dituzten seinaleak haustea ere.
- Txakurrak lorategietan, kaleetan eta espaloietan ibili ondoren, jabeek txakur-kakak ez jasotzea edota leku egokietan ez uztea.
- Hondakinak edukiontzietatik kanpo uztea edota egokiak ez diren edukiontzietan jartzea. Gizalegerik gabeko jokabide horiek amaitzea eta guztion artean desagerrarazteko gai izatea espero dugu.

#OngiEtorriErrefuxiatuak #Cáritas #Medicushmani

Elkartasun istorioak

“Euskal gizartea solidarioa izan da beti, nahiz eta boluntarioen profila aldatzen ari den. Orain zailagoa da epe luzerako konpromisoak lortzea; sostengu puntualagoak dira”, azaldu digu Marian Uriartek, **Medicushmani Araba** elkarteke langileak. Baikorra da. “Denoi gustatuko litzaiguke gauzak azkarrago aldatzea, baina urratsez urrats ere aurrera goaz. Konpromiso handiko jende asko dago, elkarte ugariri bere denbora eta energia ematen diena, beti helburu berarekin: bidezkoagoa den mundua lortzea”. Bere kasua da eta baita Encarni Urkizarena (Caritas) eta Agustín Gorbearena (Ongi Etorri Errefuxiatuak, OEE) ere. Hirurekin hitz egin dugu.

Agustín Gorbea Agirre, Ongi Etorri Errefuxiak

Bitorianoko bizilagun hau ez da geldirik egoteko jaio. 30 urtez suhiltzaile lanetan aritu da Gasteizen. Erretiroa hartuta, gustokoa du mendian paseatzea Ilargi eta Xola txakurrekin. “Orain ez dugu irudirik jasotzen –inola ere kasuala ez den gertaera honi buruz ohartarazten du–, baina 2016an gizon, emakume eta haur asko hesi atzean ikusten genituen; errefuxiatu-zentroetan sartuta; egia esan, kontzentrazio-esparruetan. Orduan nire biloba txikitxo zen, eta pentsatu nuen horietako bat izan ahal zela”. Horrela hasi zen bere lankidetzak OEE-n. Salonikan (Grezia) eta Hendaia G7ren kontragailurran egon da plataformarekin. “Palestina eta Kurdistan gehien sufritzen ari diren herrietakoak dira. Ez dut baztertzeko egun batean joan ahal izatea”, esan digu.

Jabetzen al gara pertsona horien sufrimenduari? Ez. Eta ez da aldatuko ezer, gizarte bezala denoi eragiten digula konturatzen ez garen bitartean.

Zer da Ongi Etorri Errefuxiatuak? Gaur egun, 70 milioi pertsona* baino gehiago ihes egiten ari dira gerretatik eta jazarpenetik. %1a Europara iristen da, gainerakoak Jordanian edo Libanon geratzen dira. Ongi Etorri Errefuxiatuak errefuxiatuen eta migratzaileen Giza Eskubideen aldeko plataforma da. Hona etortzea galarazten zaiela salatzen dugu, eta baita beren lurra uztera behartzen dituzten arrazoiak ere: gerrak, lehengaien lapurreta, diktadurak, arma salmentak, klima aldaketa eta sistema bera. Hainbat arlotan egiten dugu lan: ‘Estalpea izateko eskubidea’ mugimenduarekin



kalean bizi diren pertsona kalteberen kopurua azalerarazten dugu; ‘Gerrarako Eusko Label armak’ bezalako kanpainak bultzatzen ditugu; urriaren 12an azoka antimilitarista egin genuen, eta azaroan, **Sarerekin** batera, Zuiako **Giza Eskubideen Astea** antolatu dugu.

Zein da aurtengo programa? Azaroaren 13an hasiko gara, Arcadi Oliveres ekonomialari, ekintzaile eta desazkundeen defendatzailearen hitzaldi batekin. Hilaren 20an Ongi Etorri Errefuxiatuen dokumental bat proiektatuko da, eta 27an euskal preso politikoei buruzko hitzaldia izango da, euren adinekoei egoerari erreparatu: gurasoek, aiton-amonek urte asko daramatzate ikusi gabe, ezin baitzitute 1.000 km egin bisitatzeko.

(*: ACNURren, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Erakundearen Agentziaren, arabera)

Info +: **www.ongietorrierrefuxiatuakaraba.wordpress.com**



Encarni Urkiza Iturrate, Caritas

Hainbat emakumeri gertatu zitzaion bezala, Encarni ahal zuena ikasi zuen (Batxilergoko 2. mailara arte) eta ezkondu arte etxetik kanpo egin zuen lan (gozogintzako lantegi batean eta damaskinatu enpresa batean). Gero, bere familian murgildu zen. Eta seme-alabak handitu zirenean hasi zen berreskuratzen ama izanda bazterreratu behar izan zituen bizitzako alderdi batzuk. Gaur egun, astero joaten da eskulana, soinketa eta joskintza egitera; Oroko Santutegiko Zuzendaritza Batzordeko burua da; Caritas elkartearen, Zuiako arduraduna da, eta bere landa kontseiluko ordezkaria. “Osasuna besterik ez dut nahi, adinekoei ordu batzuk eskaintzen jarraitu ahal izateko”, kontatu digu.

Zertan datza zure lana? Caritasek hainbat eremutan egiten du lan; esate baterako, arreta ematen die pertsona pobreei, enplegu programak eskaintzen ditu, larrialdietan laguntzen du... Zuian bederatzi emakume eta gizon bat gara, eta gure adinekoei konpainia eskaintzen diegu. Urriketik maiatzera, eta bi gizarte-langilerekin elkarlanean, topaketa egiten dugu hilero San Migel parrokiako aretoetan. Hitz egiten dugu, jolasak egiten ditugu, oroimena lantzen dugu... Ikastaroa amaitzen denean, San Antonio Egunean, festa egiten dugu Oroko Santutegian, eta Gabonetan guztion etxetara joaten gara, jaiak zoriontzera. Bailarako egoitzak eta Eguneko Zentroa ere bisitatzeko ditugu.

Nola daude gure adinekoak? Oso bakarrik. Antzematen dugunagatik, ekonomikoki baliabideak dituzte, baina euren arazo nagusia bakardadea da. Eta asko kostatzen zaie etxetik irtetea. Beraingana joaten garenean, besoak zabaltzen hartzen gaituzte, hitz egiteko, harremanak egiteko gogo handia erakusten dute... baina gero oso gutxi etortzen dira hileko topaketara. Ez dakit, Caritas elizakoa denez, agian pentsatuko dute doktrinatu egingo ditugula. Hori ez da horrela. Adineko jendeari laguntzeko gaude, baina hor amaitzen da gure alde erlijiosoa. Mundu guztia etor daiteke, beraz. Eta gure boluntario taldea ere jende berriari irekita dago. Zenbat eta gehiago izan, orduan eta hobeto iritsiko gara.

Info +: **Cáritas Gasteiz, T_945 23 28 50**



Marian Uriarte Iturrate, Medicushmani

Marian Ametzagan bizi da udan, eta Gasteizen neguan. Komunikazio Zientzietan lizentziaduna da, Gizarte Integrazioan tituluduna eta Nekazaritza Teknikaria. Duela 10 urtetik, Medicushmani Araba elkarteke komunikazio eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren arloetan egiten du lan.

Zein proiektu dituzue martxan? GGKE* bat gara, osasuna eskubide unibertsala dela uste dugu eta hori egia bihurtzeko egiten dugu lan. Ruanda, Peru eta Ekuador bezalako herrialdeetan eskubide sozialak, ekonomikoak eta, emakumeen kasuetan, sexualak eta ugaltzaileak sustatzeko proiektuak bultzatzen ditugu. Gainera, egoera ahulean dauden herriek edateko ura eta saneamendua izan dezaten ekimenak aurrera eramaten ditugu, ura ezinbestekoa baita osasuna bermatzeko. Komunitate horien garapena ere bidezko merkataritzaren bidez babesten dugu; Gasteizko dendan (Pio XII kalean), panela, kafea, kakaoa eta abar saltzen ditugu (gure udalerrian **Zuia Naturala** taldeak banatutako produktuak). Hemen bertan, Euskadin, hezkuntza eta sentsibilizazio ekimenak sustatzen ditugu. Eta erakunde publikoen konpromisoa ere eskatzen dugu. Lan hori funtsezkoa da; mundu hobe baterako bidean, herrialde aberastuetan bizi garenon jarrerak aldatu behar baititugu.

Osasuna hobetu al da munduan? Bai. Osasunerako Mundu Erakundearen arabera, gora egin du oinarritzeko osasun zerbitzuak (txertoak, familia plangintza...) eskuratzen dituztenen kopuruak. Hala ere, munduko populazioaren erdiak ez ditu. Gure inguruan ere saiatu dira Osasunerako Eskubide Unibertsala murrizten; adibidez, Rajoyren gobernuak onartutako 2012ko lege-dekretua, egoera irregularrean zeuden migratzaileak osasun-laguntzarik gabe uzten zituen.

* (GGKE: Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea)

Info +: **www.medicushmani.es**

#VirgendeOrolkastetxea

“Gure jolastokia, denon esparrua”



2019-2020 ikasturterako, aurreikusita zegoen bezala, eraikin aurrefabrikatuak kendu zituzten Virgen de Oroko ikastetxean. Gauzak horrela, PAGAZURI Guraso Elkartetik, ekaineko eskola kontseiluan, patioan eraldaketak egiteko proiektu bat martxan abiarazteko nahia agertu zion eskolako zuzendaritza taldeari. Baiezko emaitza jasota, irailean lanari ekin zioten eskolako zenbait gurasok. Hurrengo lerrotan, Virgen de Oroko zuzendaritzak kontaktzen digu nola doan prozesua.

Zergatik jolastokia eraldatu? Zergatik gure jolastokiaz hausnartu?

Eskolako jolastokiak heziketarako guneak dira. Modu horretan, ikasleen beharretara eta nahietara egokitzen diren espazioak izan behar dute, esperimentaziorako, sorkuntzarako, parte hartzeko eta berdintasunean hezitzeko aukerak eskaintzen dituztenak.

Gaur egun, gure eskolako patioak ez ditu umeen behar izan horiek asetzen eta egoera horri aurre egiteko asmoz, zenbait guraso haien seme-alaben hezkuntza prozesuan hazi onak jartzerako bidean, zer nolako patioa behar duten aztertzen hasi dira. Betiere, haurrak erdigunean jarrita eta jolastokien diseinatzaileak haiek izan behar dutela kontuan izanik.

Non gaude? Nora goaz?

Irailean, guraso elkarteko kideekin, elkartu

ginen eta proiektua martxan jartzeko asmoa helarazi ziguten. Barneko lanetan ibili ondoren (informazioa jasotzen, biltzen, aztertzen...) duela astebete jakinarazi ziguten proiektua martxan zegoela eta eragile guztiekin, Udaletxe eta Eskolarekin behar besteko bilerak izango zituztela guztion arteko proiektu sendo bat garatu ahal izateko. Elkarren arteko lanketa eta inplikazioari behar besteko garrantzia emanez. Hortaz, gure eskolako jolastokia aztertzeari eta etorkizuna diseinatzeari ekiteko asmoz, eskola komunitatea osatzen dugun orok, bat egingo dugu aurrerantzean garatu eta gauzatuko den proiektu honekin.

Gure jolastokia denon esparrua dela sinisten dugulako, datozen asteetan, guztion arteko elkarlana errazteko asmoz, lana antolatzeari ekingo diogu.


Gomendioak

Euskaraz

- Amek ez dute_ **Katixa Agirre**
- Jack Txikiren balada_ **Mikel Valverde**
- Bizitzea ez al da oso arriskutsua?_ **Joseba Sarriñandia**
- Muxarren zazpi oheak_ **Susanna Isern & Marco Somá**
- Ernesto eta Zelestina: Simeon galdu da_ **Gabrielle Vincent**

Gastelaniaz

- TAV: ¿Y si el Leviatán fuera una sirena?_ **Ander Audikana**
- Pólvara, tabaco y cuero_ **Javier Valenzuela**
- Mala pinta_ **Spike Milligan**
- Pioneras. Mujeres que abrieron camino_ **Espido Freire**
- Las legendarias aventuras de Chiquito_ **Sergio Mora**



Gure aukerak

Gastelaniazko liburua

La chica de la Leica

Helene Janeczek

Gure liburutegiko beste aurkikuntza bat da Helena Janeczek (Munich, 1964) idazlearen 'La chica de la Leica' eleberri ospetsua. Gerda Taro (Gerda Pohorylle) eta haren nortasuna deskubritzera gonbidatzen gaituen eleberria, hain zuzen ere. Emakume alai, konprometitu, grinatsu eta askea izan zen, bere bizitza argazkigintzari eman ziona. Aitzindaria izan zen eta argazkilari ausarta, Andre Friedmannekin lotua bai lanean, bai maitasunean. Elkarrekin egin zuten lan, izengoiti batenpean; horrek bakoitzaren argazkiak ezagutzea, bereiztea eta haien egiletza jakitea zaildu zuen, Taroren kalterako.




Euskarazko liburua

Gaztaina azpian

Antton Kazabon/Jokin Mitxelena

Zuiako Liburutegiko nobedadeen artean 'Gaztaina azpian' dugu, Antton Kazabonek idatzi eta Jokin Mitxelenak ilustratutakoa. Bertsoen munduan murgiltzeko aukera ederra, artaldearen istorio klasikoetik abiatuta: txakur-zaindaria, zain daukan otsoa, gatazka, erasotzailearen eta babeslearen arteko tentsioa, bere eskopetaren atzean lausotutako artzainaren irudia, otsoaren eta txakurraren arteko nolabaiteko konplizitatera iritsi arte. Azken finean, senideak dira.



Zuia Bolos Elkarte

37 urte udalerriko bolatokiak girotzen



Argazkia: Ane Elejalde.

Arabako boloak zale asko ditu Zuiako udalerrian. Horren erakusle da urtero herri ezberdinen artean antolatzen den txapelketa. Pedro Cendeguirekin egin dugu berba, esandako kirol jarduera eta herrien arteko txapelketa hobeto ezagutzeko.

Noiztik egiten da bolo txapelketa?

37 urte daramatzagu antolatzen. Bere garaian, udalerriko herri gehienek parte hartzen zuten baina, denborarekin, behera egin du kopuru horrek eta gaur egun Lukiano, Bitoriano, Zarate, Murgia, Gilierna eta Aperregiren artean jokatzen da; azken hau hiru taldeekin. Irailaren amaieran hasten da txapelketa eta bi hilabetez luzatzen da, larunbat arratsaldetan.

Noiz hasten zarete dena antolatzen?

Astebete lehenago batzen hasten gara. Lehenik eta behin, parte hartuko dugun herrien ordena zozkatzen dugu; dena dela, salbuespen bat badugu: Lukiano. Bertako bolatokia zabalik dago eta izoztuta egoten garenez, lehena izaten da beti. Zozketa egiteaz gain, kartelak jartzen ditugu jendeak izena eman dezan.

Badu Arabako Boloa modalitateak berezitasunik?

Kontua da taula gainean dagoen bolo botatzea eta, jarraian, besteekin berdina egiten saiatzea. Larunbatetan jokatzen dugu: 19:30ean, probari hasiera ematen diogu, eta ordu erdi beranduago,

jaurtitzeari.

Aurten, taldea osatzen duten lagunen kopurua aldatu da. Bost izatetik lau izatera pasa da.

Zergatik aldaketa hori?

Jendea zahartzen ari da eta gero eta gutxiago parte hartzen du eta gazteei kosta egiten zaie parte hartzea. Pasa den urtean, taldeak behar bezala betetzeko arazoak izan genituen eta hori dela eta, parte-hartzaileen kopurua murriztea erabaki genuen. Dena dela, Aperregiko talde bat neska eta mutil gaztez osatuta dago. Laguntza badut ere, txapelketa lehen aldiz antolatu zenetik nabil honetan eta nekatuta nago; baina, neurri handi batean, gazteengatik jarraitzen dut, beraiek ere jarraitu dezaten. Boloetarako zaletasun handia dute. Arazoa da azterketak dituztenean ezin dutela parte hartu; baina logikoa da ikasketak direlako garrantzitsuena.

Zer sari du talde irabazleak?

Bere garaian, dirua jasotzen zuten; baina azken urteotan, jenerotan saritzen da. Normalean gazta, ezti edo teilak irabazten dituzte.

Info gehiago: T_656 79 12 18 (Pedro)

Giza Eskubideen hilabetea Zuian

Azaroak 13, asteazkena 19:30 udaletxean
13 de Noviembre, miércoles 19:30 ayuntamiento
Un sistema económico y social que necesita cambios.
Hizlaria / Ponente: Arcadi Oliveres

Azaroak 20, asteazkena 19:30 udaletxean
20 de Noviembre, miércoles 19:30 ayuntamiento
Presentación "Ongi Etorri" dokumental aurkezpena
Hizlaria / Ponente: Anabel Sanz del Pozo

Azaroak 27, asteazkena 19:30 udaletxean
27 de Noviembre, miércoles 19:30 ayuntamiento
Azken arnasa arte Hasta el último suspiro
Hizlariak / Ponentes: Fernando Arburua eta Agustín Otsoa Eribeko

AZAROA GIZA ESKUBIDEEN HILABETEA

- **13_Hitzaldia Arcadi Oliveres** ekonomista eta aktibista sozialaren eskutik. Sare eta Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteek antolatua. Udaletxean, 19:30ean
- **20an, 'Ongi Etorri'** dokumentalaren proiektzioa, **Anabel Sanz del Pozo** aktibista feministak eta **Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia** kirolak aurkeztuta. Udaletxean, 19:30ean
- **27an, 'Senide adinduak eta sakabanaketa'** hitzaldia, **Fernando Arburua eta Agustín Otsoa Eribeko** eskutik. Udaletxean, 19:30ean

AZAROA

- **14_ PROSTITUZIO**ari buruzko hitzaldia, **AMELIA TIGANUS** ekintzaile feministak eskainita. Azaroak 25 - Emakumeen aurkako Indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna programaren barnean. Udaletxean, 18:30ean
- **17_ SUKALDE TXIKI** tailerra. 11:00etan, Be Murgia Etxean. Eman izena aldeztu aurretik 945 43 01 67 telefono zenbakian (Cristina). Abenduaren 15ean beste saio bat egingo da.
- **22_IRAKURKETA FAMILIAN** tailerra. 0 - 8 urte bitarteko umei zuzenduta (heldu batek lagunduta). Zuiako Liburutegian, 18:00etan.

ZUBIAGENDA

Deialdien azken berriak izateko, jo ezazu udalaren webgunera: www.zuia.eus eta udalaren sare sozialetara: www.facebook.com/ZuiakoUdala eta @ZuiakoUdalaTwitterren

Kontrakorik esaten ez bada, iragarritako ekitaldiak Murgian egingo dira. Informazio gehiago eskuratzeko 945 43 01 67 telefono zenbakira dei dezakezu.

ABENDUA

- **4_ ZINEMARA GOAZ!** Adi www.zuia.eus Udalaren webgune, Facebook eta Twitterri. Bertan jakinaraziko dira ekimenaren xehetasunak, azaroaren amaieran.
- **6_BERTSOGLOSA.** Murgia tabernaren aldeko emanaldiak eta finala Gaztetxean. 19:00etan
- **14_LORE APAINKETA** tailerra, **Javier Apodakaren** eskutik. Plaza kopuru mugatua. Eman izena aldeztu aurretik 945 43 01 67 telefono zenbakian. Udaletxean, 17:30ean
- **18_ EUGENIO BEA MURGIA** bekaren baitako hitzaldia. Zuiako Liburutegian, 18:00etan
- **21_APODAKA TRIO + WALTER CORONA** musika emanaldia. Murgia San Migel elizan, 19:00etan
- **24_ OLENTZERO ETA MARI DOMINGO** etorria. Palatu kiroldegian, 19:00etan
- **25_SARRIAKO GABONETAKO SEGIZIOA**
- **26_ ALBA TOJO**ren margo erakusketa. 29ra arte, udaletxean
- **29_DANTZALDIA.** Igerilekueko terrazan, 18:30ean

#SukaldeJasangarriak

Koipe-bereizgailuak

Urte bukaera honetan ere, koipe bereizgailuak garbitzeko udal kanpaina egingo da. Zure etxebizitzan horrelakorik badaukazu eta garbitzera pasa gaitzen nahi baduzu, eman izena udal bulegoetan **azaroaren 25a baino lehen**, zure helbidea eta harremanetarako telefonoa utzita.

#CocinasSostenibles

Separadores de grasas

Llega, un año más, la campaña municipal de limpieza de los separadores de grasa. Si dispones de uno en tu vivienda y quieres que pasemos a limpiarlo, apúntate en las oficinas municipales **antes del 25 de noviembre**, facilitando domicilio y teléfono de contacto.

Zuian #JakinBeharrekoa jakiteko

Udal Informazio Sarea

Zuiako Udalak aspalditik dauka martxan kultura-deialdiak, enplegu-eskaintzak, udal-bandoak... hedatzeko tresna bat: Udal Informazio Sarea. Bertan parte hartu eta gure jakinarazpenak jaso nahi badituzu, bidali zure izena eta helbide elektronikoa hurrengo e-mailera: cristinakulturazuia@gmail.com

La #InformaciónMunicipal en tu email

Red de Difusión Local

El Ayuntamiento de Zuia tiene en marcha una herramienta para difundir convocatorias culturales, ofertas de empleo, bandos municipales... Es la Red de Difusión Local. Si quieres sumarte y recibir nuestras notificaciones, no tienes más que enviar tu nombre y dirección de email a cristinakulturazuia@gmail.com

BUKATZEKO 3 KONTU

1_ Zure udalak erantzuten dizu

Udaleko arduradunekin hitz egin nahi duzu? Pasa zaitez udaletxetik, utzi zure telefono zenbakia eta deituko dizugu hitzordua emateko. Edota bidali nahi duzun iruzkina hurrengo e-mailera: azuia.general@ayto.araba.eus

2_ Intereseko telefonoak

Udaletxea: 945 43 00 05
Kiroldedia: 945 43 01 57
Osasun Zentroa: 945 43 00 30
Botika: 945 43 02 36
Guardiako botika: 636 59 30 13
Gizarte Laguntzailea: 945 43 04 60
Eguneko Zentroa: 945 43 03 75
Larrialdiak: 112
Turismo bulegoa: 945 43 04 40
Gorbeialdeko Kuadrilla: 945 43 01 67

3_ Zuiako Udala, internet ere

www.zuia.eus



@ZuiakoUdala

3 COSAS PARA TERMINAR

1_ Tu ayuntamiento responde

¿Quieres hablar con tus representantes municipales? Pasa por el Ayuntamiento, deja tu número de teléfono y te daremos cita. O, si prefieres, envíanos tu comentario por e-mail: azuia.general@ayto.araba.eus

2_ Teléfonos de interés

Ayuntamiento: 945 43 00 05
Polideportivo: 945 43 01 57
Centro Salud: 945 43 00 30
Farmacia: 945 43 02 36
Farmacia de guardia: 636 59 30 13
Asistente Social: 945 43 04 60
Centro de Día: 945 43 03 75
Urgencias: 112
Oficina de Turismo: 945 43 04 40
Cuadrilla de Gorbeialdea: 945 43 01 67

3_ También estamos en

www.zuia.eus



@ZuiakoUdala